



Ekipoa	Aerosorgailuak
Kodea	D-4021
Ingurumen-hobekuntza	<ul style="list-style-type: none"> - Energia aurreztea. - Klima-aldaketaren aurkako borrokan laguntzea.
Deskribapena	<p>Haizearen energia zinetikoa energia elektriko bihur dezakeen gailuak dira aerosorgailuak. Antzina ehotzeko eta irina lortzeko erabiltzen ziren haize-errotetatik datoz zuzenean (oraindik ere batzuk erabiltzen dira).</p> <p>Aerosorgailuen beso edo palen profilari esker, haizeak ardatz baten inguruan birarazten ditu, eta engranajeen sistema mekaniko baten bidez, sorgailu baten errotorea (normalean, alternadore bat) birarazten du. Hala, korrante elektrikoa sortzen da.</p> <p>Aerosorgailuek modu isolatuan funtziona dezakete, edota sare elektrikora konektatuta. Lehenengo kasuan, eguzki-sistema fotovoltaikoekin eta energia elektrikoaren metagailuekin konbina daitezke (diesel sorgailu baten bidez ordezkari daitezke). Horrenbestez, eskaria ase daiteke eguzki-erradiazio gutxi dagoenean edo haizerik ez dagoenean. Sare elektrikora konektatuta dauden aerosorgailuek, berriz, sinkronizazio-sistema sofistikatu bat izan behar dute, sortutako korrontearen maiztasuna sarearekin erabat sinkronizatuta egon dadin (Espainiaren kasuan 50 Hz-koa da maiztasun hori).</p> <p>Beste alde batetik, haize-parkeen ekoizpen-etekina % 30eraino murrizten da neguko hilabeteetan, besoen gainean izotza metatzen delako eta aldi baterako utzi egiten diotelako jardunari. Aukeran, arazo hori konpondu egin daiteke, izotzaren kontrako pinturak edo estaldurak garatu, horiek sorgailuei aplikatu eta urte osoan ohiko jarduna ahalbidetuta.</p> <p>Edonola ere, errotazioaren abiadura kontrolatzeko sistema bat eduki behar da, haize indartsuegiek instalazioa arriskuan jar baitezakete. Kontrolatzeko sistema horien bidez, palak edo besoak jartzen dira haizeari ahalik eta gutxien kontra egiteko, eta errotazioaren abiadura murrizteko aukera ematen dute.</p> <p>Aerosorgailuak azkar zabaldu dira, energia berriztagarria lortzeko iturri garbia direla uste baita; izan ere, sistema horretan ez dago hondakin kutsatzaileak sortuko dituen errekuntzaren beharrik.</p> <ul style="list-style-type: none"> - Historikoki zenbait kolektibo energia-iturri berriztagarri horren aurka agertu dira, hegaztiak hiltzen direlako, erroten besoekin talka egin ostean. Fenomeno hori ia konponduta dago parke berrietan. Arazoak sortzen ziren biraketa-abiadurak oso handiak zirelako, eta, horren ondorioz, erroten besoak ez zirelako ikusten. Gainera, ez ziren pasabideak uzten. Gaur egun, hegazti batek aerosorgailu batekin talka egiteko arriskua da automobil batek hegazti hori harrapatzeko arriskua baino txikiagoa. Gainera, kontuan hartu behar da aerosorgailuek ez dutela argirik, hegaztiak itsutuko dituenik, automobilerik bai ordea.



Zein sektoretan aplikatu daitekeen eta erabilerak	<p>Hauetan erabiltzea proposatzen da:</p> <ul style="list-style-type: none">- Abeltzaintzako ustiategiak.- Nekazaritzako kooperatibak- Abeletxeak eta baserriak.- Artzainen bordak eta mendi-aterpeak.- Industrialdeak.- Teknologia-parkeak.- Jarduera guztietan aplikatu daiteke. Energia elektrikoaren hornidura, sare-instalazio isolatuen, autokontsumoko instalazioen eta sarerako konexioen bidez.
--	--